

"FUNDACIÓN ARANTZAZU GAUR FUNDAZIOA"ren ESTATUTUAK

I. TITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Eraketa, izena eta iraupena
2. artikulua. Araubide juridikoa, nortasuna eta gaitasun juridikoa
3. artikulua. Fundazioaren helburuak
4. artikulua. Helburuen garapena
5. artikulua. Egoitza
6. artikulua. Lurralde esparrua
7. artikulua. Onuradunak
8. artikulua. Publikotasuna

II. TITULUA. PATRONATUA

I. KAPITULUA. OSAKETA ETA ESKUMENAK

9. artikulua. Patronatua
10. artikulua. Osaketa
11. artikulua. Iraupena
12. artikulua. Patronatuko kideak izendatzea eta postu hutsak betetzea
13. artikulua. Doakotasuna
14. artikulua. Fundazioko Lehendakaritza
15. artikulua. Lehendakariordetza
16. artikulua. Idazkaritza
17. artikulua. Diruzaintza
18. artikulua. Patronatuaren eskumenak
19. artikulua. Patronatuko kideen betebeharrak
20. artikulua. Autokontratazioarako debekua
21. artikulua. Patronatuko kideen erantzukizuna
22. artikulua. Eskuordetzeak, batzorde delegatu edo exekutiboak eta ahalordetzeak.
23. artikulua. Gerentzia
24. artikulua. Fundazioaren zerbitzurako langileria

II. KAPITULUA. PATRONATUAREN FUNTZIONAMENDURAKO ARAUBIDEA

25. artikulua. Barruko funtzionamendua
26. artikulua. Patronatua eratzea eta erabakiak hartzea

III. TITULUA. ONDAREA ETA ERREGIMEN EKONOMIKOA

I. KAPITULUA. ONDAREAREN OSAKETA, ADMINISTRAZIO ETA ZAINZA

27. artikulua. Fundazioaren ondarea
28. artikulua. Baliabideak



Notaria erabilerarako soilik.
Para uso exclusivo notarial.

B 27040878



Arantzazu Gaur

Arantzazulab
GIZARTE BERRIKUNTZA
SOCIAL INNOVATION

29. artikulua. Ondare aldaketak
30. artikulua. Fundazioaren ondarea zaintzea

II. KAPITULUA. ERREGIMEN EKONOMIKOA

31. artikulua. Enpresa jarduerak
32. artikulua. Ekitaldi ekonomikoa eta jarduera plana
33. artikulua. Ekonomia eta kontabilitate betebeharrak
34. artikulua. Kontuak ematea
35. artikulua. Kontratazio erregimena

III. KAPITULUA. BALIABIDEAK FUNDAZIOAREN XEDEARI APLIKATZEKO ARAUAK

36. artikulua. Administrazio sarreraren eta gastuen xedea

IV. TITULUA. ALDATZEA, BAT EGITEA, BEREIZTEA, ERALDATZEA ETA DESEGITEA

37. artikulua. Estatutuak aldatzea
38. artikulua. Bat egitea
39. artikulua. Bereiztea
40. artikulua. Fundazioa eraldatu eta bestelako erakunde bihurtzea
41. artikulua. Desegitea
42. artikulua. Desegiteko prozedura
43. artikulua. Likidatzea

V. TITULUA. FUNDAZIOEN BABESLETZA ETA ERREGISTROA

44. artikulua. Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesletza
45. artikulua. Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroa

VI. TITULUA. FUNDAZIOAREN LAGUNTZAILEEN ARAUBIDE JURIDIKOA

46. artikulua. Laguntzaileak
47. artikulua. Ohorezko laguntzaileak

FUNDACIÓN ARANTZAZU GAUR FUNDAZIOAREN ESTATUTUAK

I. TITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.- Eraketa, izena eta iraupena

Estatutu hauen bidez, "Fundación Arantzazu Gaur Fundazioa" izeneko fundazioa arautzen da. Fundazio hau Arantzazuko Frantziskotar Probintziak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Oñatiko Udalak eta Mondragón Corporación Cooperativa S.Coop. kooperatibak eratu zuten, 2008ko apirilaren 14an eman eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan 2008ko azaroaren 21ean, F-233 zenbakiaz, inskribatutako eskritura publikoan.

Irabazi asmorik gabe sortutako antolakundea da Arantzazu Gaur Fundazioa; eta, bere sortzaileen erabakiari eutsiz, ondare osoa honako estatutu hauetako 3. artikuluan deskribatutako diren interes orokorreko helburuetara bideratuko du etengabe.

Arantzazu Gaur Fundazioa bere fundatzaileen borondatearen eta estatutu hauen arabera arautzen da; eta, betiere, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legearen eta hori garatzeko erregelamendu-xedapenen eta indarrean dauden gainerako arauen arabera.

2. artikulua.- Araubide juridikoa, nortasuna eta gaitasun juridikoa

Arantzazu Gaur Fundazioak nortasun juridiko propioa eta independentea du eraketa-eskritura Fundazioen Erregistroan inskribatu denetik; eta beraz, ahalmen juridiko eta jarduteko gaitasun osoa izango du. Hau da, sortzaileek eraketa-egintzan egindako borondate-adierazpenean ezarritako mugak edota estatutu hauetan ezarritakoak bakarrik izango ditu; eta, edozein kasutan ere, aplikagarri zaizkion legezko xedapenetan finkatutako mugak errespetatu beharko ditu; bereziki, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko 9/2016 Legeak, ekainaren 2koak, ezarritakoak.

Horrela bada, Babesletzari bidezko komunikazioak egin beharko dizkion arren, Fundazioak eskumen osoa izango du era guztietako ondasun higikor, higiezin eta eskubideak eskuratu, gorde, eduki, erabili edota besterentzeko; era guztietako egintzak edo kontratuak egiteko; maileguak hartu eta ordaintzeko; barkatzeko eta gobernu-bideari zein auzi-bideari ekiteko, epaitegi, auzitegi eta erakunde publiko nahiz pribatuetan era guztietako egintzak eta salbuespenak erabiliz, betiere antolamendu juridikoan ezarritakoa belez.

3. artikulua.- Fundazioaren helburuak

Fundazioaren jardura nagusia eta ardatza Gizarte berrikuntza laborategia da, eta haren helburua da Arantzazu erreferentziazko berrikuntza nodo bihurtzea, gizarte justuagoa, kohesionatuagoa, lehiakorragoa eta gizatiarragoa lortzeko. Oinarritzko premien, bizikidetzaren eta balioen ikuspegitik abiatuta, elkargune bihurtzea da laborategiaren berezitasun nagusia, zehazki, herritarrek topagune gisa erabili ahal izateko, eta gure gizartearen beharren eta erronka nagusien inguruan ikuspegi berriarekin hausnartzeko, ikertzeko eta esperimentatzeko, betiere entzute eta ikaskuntza aktiboaren bidez.



Notaria erabilerarako soilik.
Para uso exclusivo notarial.

B 27040877

ArantzazuGaur



Arantzazulab
GIZARTE BERRIKUNTZA
SOCIAL INNOVATION

Helburu nagusi horren osagarri, Arantzazu sustatzeko eta eraberritzeko prozesua bultzatzea, dinamizatzea, kudeatzea eta koordinatzea da Fundazioaren beste helburu zehatzago bat. Eta zeregin horiek, ikuspegi orokorrak eta etorkizunari begira beteko ditu, santutegiaren identitate historikoa nahiz frantziskotartasunaren printzipioak errespetatuz eta eraldaketa soziokulturalak aintzat hartuz.

Helburu zabal horren barruan, Arantzazuko Gizarte Berrikuntza Laborategiaren edukien garapena eta programaren hedapena da Fundazioaren jardura nagusia, marko estrategikoan zehaztutako helburu eta ardatz estrategikoen arabera. Honako hauek dira bere baitako ekintza aipagarrienak:

1. Herri bezala ditugun gizarte erronkei erantzuteko gizarte berrikuntza eta gizarte eraldaketa sustatzea, hiru jardura nagusiren inguruan garatuko diren proiektu eta ekimenen bitartez: Ikerketa, Esperimentazioa, Dibulgazioa. Ekimen hauek bertako zein nazioarteko eragile anitzekin lankidetzak sareak sustatuz garatzea.
2. Arantzazuko santutegiko arte eta kultur ondarearen kudeaketa eta hau gizarteratzeko ekimenak sustatzea. Arantzazuren erreferentzia izaera, berezitasuna, eta fedea irudikatzen duten barne erreferenteak sustatzea (Basilika, Gandiaga Topagunea 1-2, Arantzazuren kultur historia, natur ingurunea, etab.)
3. Fundazioaren esku dauden azpiegitura eta baliabideen kudeaketa:
 - "Gandiaga Topagunea 1" batzar zentroaren kudeaketa eta azpiegitura hau baliok jartzea. Fundazioari dagozkion eta Arantzazun jendea artatzeko zerbitzuen kudeaketa eta ustiapenaren koordinazioak arduratzea; eta hori ikuspegi osoarekin eta Gizarte Berrikuntza Laborategiarekin elkar laneko guneak uztartuz egitea.
 - Fundazioari dagozkion beste baliabide eta azpiegituren kudeaketa eta ustiaketa koordinazioa.
 - Gandiaga inguruko eremuen eta azpiegituren mantenua eta horietatik sortzen diren beharrak erantzun eta kudeatzea.
 - Arantzazun dauden Frantziskotarren beste baliabideekin koordinatu eta elkar laneko guneak uztartzea.

Fundazioaren berariazko helburuak lortzeko lagungarri izan daitekeen jardura oro.

4. artikulua.- Helburuen garapena

Fundazioak egokien deritzon moduan garatu ahal izango ditu jarritako helburuak; baita bestelako entitate edo antolakuntzetan parte hartuz ere. Hau da, eraketa-agiritik, estatutu hauetatik eta, betiere, legeetatik etor daitezkeen mugak bakarrik errespetatu beharko ditu helburu horiek lortzeko bidean.

5. artikulua.- Egoitza

Fundazioak, Oñatiko (Gipuzkoa) udalerrian izango du egoitza, Arantzazuko Gandiaga Topagunean, hain zuzen. Patronatuak egoitza hori nahi duenean alda dezake, baina betiere, Fundazioen Erregistroari aldaketaren berri eman beharko dio. Era berean, Patronatuak ahalmena izango du Fundazioaren helburuak betetzeko beharrezkotzat jotzen diren establezimendu, ordezkaritza edo bulegoen egoitzak zehazteko.

6. artikulua.- Lurralde esparrua

Fundazioak batez ere Gipuzkoako lurralde historikoan garatuko ditu bere jarduerak.

7. artikulua.- Onuradunak

Fundazioak, interes orokorreko helburuak lortzeko bidean, objektibotasun osoz eta partzialtasunik gabe aukeratuko ditu onuradunak, hau da, ez du inolako bereizkuntzarik egingo. Ildo horri jarraituz, Fundazioaren jarduerak mesedegarri dituen pertsona fisiko edo juridiko oro izan daiteke onuradun. Onuradunak ez dira, inolaz ere, bakarka erabakitako pertsonak izango; era berean, sortzaileak, hauen ezkontideak eta laugarren maila arteko ahaideak ere ezin izango dira Fundazioaren prestazioez baliatu.

Fundazioak, emandako zerbitzuen trukean, onuradunei zenbatekoren bat ordainarazi behar dienean, kasuan-kasuan ordaindu beharreko zenbatekoaren ordainketari bakarrik begiratuko dio onuradunak izendatzerakoan. Era berean, Fundazioaren berezko izaerak hala aginduta, onuradunen kopurua murriztu beharra gertatzen bada, Fundazioaren Patronatuak izaera ezeztazenez aukeratu eta erabakiko ditu onuradunak. Hori horrela, izangaiei merezimenduak, premiak, gaitasun ekonomikoa eta prestazioez baliatzeko duten aukera hartuko ditu aintzat, edo bestelako ezaugarri objektiboen arabera jardungo du. Edozein kasutan ere, aipatutako onurak eman aurretik, onurak gozatzeari buruz inork ezin izango die ezer esan Fundazioari edo honen organoei, ez bakarka ez taldeka; ezta onura horiek pertsona jakin batzuei esleitzeko agindu ere.

8. artikulua.- Publikotasuna

Patronatuak bere helburu eta jarduerari behar hainbateko publizitatea emango die, onuradun edo interesdun izan daitekeen orok Fundazioaren jarduketan berri izan dezan.

II. TITULUA. PATRONATUA

I. KAPITULUA. OSAKETA ETA ESKUMENAK.

9. artikulua.- Patronatua

Patronatua da Fundazioa gobernatzeko eta ordezkatzeko organoa. Patronatuari dagokio Fundazioaren helburuak betetzea, Fundazioaren ondarea osatzen duten ondasunak eta eskubideak arduraz administratzea, eta horien etekina eta erabilgarritasuna mantentzea.



Notaria erabilerarako soilik.
Para uso exclusivo notarial.

B 27040876



ArantzazuGaur



10. artikulua.- Osaketa

1. Patronatuak hamabi kide izango ditu gutxienez, eta hamasei gehienez.

2. Patronatuak honako kideak izango ditu:

- Arantzazuko Frantziskotar Probintziako Ministro Probintziala.
- Gipuzkoako Diputatu Nagusia.
- Oñatiko alkatea.
- Mondragon Corporación Cooperativa, S.Coop.
- Kutxa Fundazioa
- Arantzazuko Frantziskotar Probintziako Kontseilu Probintzialak (Definitorioa) izendatutako bost kide.
- Gipuzkoako Lehen Diputatu Nagusiordea.
- Gipuzkoako Bigarren Diputatu Nagusiordea.

3. Patronatuak, gainera, Fundazioari ekarpen ekonomiko nabarmen eta iraunkorrak egiten dizkioten pertsona fisiko edo juridikoak patronatukide izendatu ahal izango ditu, baldin eta kideen bi herenen aldeko botoa badu.

11. artikulua.- Iraupena

Patronatuko kideen karguak epemugarik gabeko iraupena izango du.

Hala eta guztiz ere, Arantzazuko Frantziskotar Probintziako Kontseilu Probintzialak kargutik edozein unetan kendu ahal izango ditu berak izendatutako kideak.

Patronatuak ere kargutik edozein unetan kendu ahal izango ditu berak izendatutako kideak.

12. artikulua.- Patronatuko kideak izendatzea eta postu hutsak betetzea

Lehen Patronatua sortzaileek izendatuko dute Fundazioaren eraketa-eskrituran.

Patronatuko kide izendatutako guztiek beren kargua espresuki onartu beharko dute Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legeak 16. artikuluan aurreikusitako formularen bat erabiliz. Uko egiteko bete behar izango da aipaturiko artikulua 2. zenbakian aurrez ikusitako formetako baten bitartez.

Gobernu organoko kide baten heriotza, ezintasun, ezgaitze, heriotza aitorpena, baztertzeko edo bateraezintasun, uko egite, kargutik kentzea dela-eta, edota kide hori ordeztara edo kargua uztera behartzen duen beste edozein arrazoi dela-eta, hutsik geratzen diren postuak, hasierako prozedura berberari jarraituz beteko dira. Postu bat gehienez ere 6 hilabetez egon daiteke hutsik. Erabakien baliozkotasuna bermatzeko, estatutu hauetako 10. artikuluan ezarritako gutxienezko kide kopurua mantentzera behartuak daude Patronatuko kideak.

Patronatuko kide batek bere kargua ez badu betetzen Legean eta honako estatutu hauetako 19. artikuluan aurreikusitako arduraz, eta ondorioz, bere aurkako erantzukizun eginiza abiarazten bada, epaileak, kautelazko neurri gisa, Patronatuko kide hori kargutik kentzea erabaki ahal izango du.

Gobernu organoko kideen ordezkapenak, kargu uzteak eta kargutik kentzeak, Fundazioen Erregistroan inskribatu beharko dira.

13. artikulua.- Doakotasuna

Patronatuko kideek doan beteko dute beren kargua. Hala eta guztiz ere, beren zereginen sortu zaizkien eta behar bezala justifikatzen dituzten gastuak berreskuratzeko aukera izango dute.

14. artikulua.- Fundazioko Lehendakaritza

Lehendakaria Arantzazuko Frantziskotar Probintziako Ministro Probintziala izango da, eta berari dagokio bere ekimenez edo kideen gutxienez heren baten eskaeraz Patronatua biltzeko deialdia egitea, eztabaidak zuzentzea eta batzarrean hartutako erabakiak gauzatzea.

Patronatuko lehendakaria izango da gobernu organoko ordezkari behinena. Eta, gobernu organoko kide goren horri dagozkion berariazko ahalmenak eta estatutu hauek esleitutako ahalmenak izateaz gain, Fundazioa berak ordezkatzeko du Patronatuak eta Fundazioaren beste organoek hartutako erabakietatik eratorritako eginiza eta kontratu guztietan, hala nola sor litezkeen auzi eta espedienteetan, edota administrazioako, gobernuko, epaitegietako eta epaitegiez kanpoko arazoetan. Eta xede horrekin, prokuradoreei edo abokatuak auzietarako ahalmen orokorrak emateko gaitasuna izango du.

15. artikulua.- Lehendakariordetza

Lehendakariordea Gipuzkoako Diputatu Nagusia izango da.

Lehendakaritza hutsik dagoenean edota lehendakaria kanpoan edo gaixo dagoenean, lehendakariordeak ordeztuko du; eta hori egiaztatzeko nahikoa izango da interesdunen adierazpen soila. Bi kide hauek falta direnean, postu hori kide adintsuenak beteko du.

16. artikulua.- Idazkaritza

Patronatuak kideetako bat izenda dezake idazkari, eta honek hitza eta botoa izango ditu. Patronatuaz kanpoko norbait ere izenda daiteke zeregin horretarako, baina ez du botoa emateko eskubiderik izango. Idazkariak bileretan hartzen diren erabakien agiriak egin eta, onartu ondoren, Akten Liburuan jasoko ditu. Era berean, ziurtagiriak egingo ditu lehendakariaren oniritziarekin.

17. artikulua.- Diruzaintza

Patronatuak, diruzaina bere kideen artean izenda dezake, edo kanpoko norbait, bidezkoz jotzen badu; eta honek, Patronatuak agindutako zereginak izango ditu.



Notaria erabilerarako soilik.
Para uso exclusivo notarial.

B 27040875



arantzazuGaur



Hauek dira diruzainaren esku utz daitezkeen zereginak:

- 1.- Fundazioaren funtsak biltzea eta zaintzea.
- 2.- Sarreraren eta gastuen balantzeak aurkeztea eta sinatzea.
- 3.- Inbentarioen, urteko kontuen eta jardura plana eta egunkari-liburua eramatea.

18. artikulua.- Patronatuaren eskumenak

Patronatuaren eskuduntza Fundazioaren gobernu eta administrazioarekin zerikusia duen orotara zabalduko da; bereziki eta gutxienez:

- 1.- Fundazioaren nondik norakoak ezartzea, helburuak hobeto betetzearren.
- 2.- Baliabide administratibo eta finantzario guztiak administrazioa, baliabide horien jatorria edozein delarik ere.
- 3.- Aurreko ekitaldiko inbentarioa, Egoera Balantzea, Eraitzen kontua eta Memoria onartzea; baita epe horretako jardura planaren likidazioa ere.
- 4.- Hurrengo ekitaldiko jardura plana onartzea, ekitaldi horretako azalpen memoria bezalaxe.
- 5.- Fundazioaren barne arauak onartzea; bereziki, laguntzaileei buruzko barne araudia.
- 6.- Patronatuko kide berriak izendatzea, bai kide kopurua handitu behar denean baita ordezkapenak egin behar direnean ere, eta Patronatuko kideak kargutik kentzea.
- 7.- Batzorde delegatuak edo exekutiboak eratzea, hauen kideak izendatu eta dagozkien ahalmenak zehaztea, eta ahalordetze orokorrak edo bereziak ematea, estatutu hauetako 22. artikuluan xedatutako denarekin bat etorriz.
- 8.- Zuzendaritzako karguak, exekutiboak eta aholkulariak izendatzea, eta beharrezkoak diren teknikari, administrazio, langile eta menpekoak kontratatzea, estatutu hauetako 24. artikuluan ezarritako denarekin bat etorriz.
- 9.- Fundazioaren helburuak betetzeko beharrezkoak diren egintza eta kontratu guztiak eratu eta onartzea, edozein motakoak direlarik ere: zibilak, merkataritza izaerakoak, lan arlokoak, administrazioak edo beste.
- 10.- Lerrun handiagoko erabakia eskatzen duten proposamenak bidezko erakunde eskudunen irizpenera jartzea.
- 11.- Enpresek, erakundeek edo partikularrek lankidetzat tekniko programetan eta langileria kualifikatua prestatzeko programetan parte har dezaten sustatzea, diru ekarpenak eginez edo lankidetzat hitzarmenak sinatuz.
- 12.- Fundazioaren onurari begira, herentziak, legatuak edo dohaintzak onartzea edo baztertzea, betiere Babesleztzari hartutako erabakiaren berri emanez.
- 13.- Fundazioaren eraketa estatutuak aldatzea, baldin eta sortzailearen nahia hobeto betetzeko beharrezkoa bada; eta bat-egite, bereizte, eraldatze, desegite eta likidatze kasuetan dagozkion erabakiak hartzea.

19. artikulua.- Patronatuko kideen betebeharrak

Fundazioaren Patronatuko kideek honako betebeharrak izango dituzte:

- a) Fundazioaren helburuak zorrotz bete eta betearaztea, Legean eta Fundazioaren estatutuetan xedatutakoari jarraituz.

- b) Fundazioaren ondarea osatzen duten ondasunak eta eskubideak administrazioa, eta horiek eraginkortasun osoz mantentzea, kudeatzaile on baten irizpide ekonomiko eta finantzarioei jarraituz.
- c) Kargua ordezkari leial bati dagokion arduraz betetzea.

20. artikulua.- Autokontratazioarako debekua

1. Patronatuko kideek edo haien ordezkariak Fundazioarekin ezin izango dute kontraturik egin, ez beren izenean ez hirugarren baten izenean, baldin eta Babesletzak horretarako baimena ematen ez badu bahintzat, ezarritako prozedurari jarraituz.
2. Fundazioaren helburuak ahalik eta hobekien lortzeko egingo dira kontratu horiek, interes gatazkarik sortu gabe eta merkatuko baldintzetan, Fundazioan kontratazioaren ardura duen pertsonak edo organoak aldez aurretik erabaki arrazoitua emanda, betiere.

21. artikulua.- Patronatuko kideen erantzukizuna

1. Patronatuko kideek Fundazioaren aurrean solidarioki erantzungo dute legearen edo estatutuen kontrako egintzen ondorioz, edo kargua behar bezalako arduraz ez betetzeagatik, eragiten dituzten kalte eta galerengatik.
2. Erantzukizuna bultzatu duen erabakiaren aurka azaldu ziren kideek edota erabaki hori hartzerakoan parte hartu ez zuten kideek, ez dute erantzukizunik izango, baldin eta, erabakiaren berri izan arren beren desadostasuna ez zutela azaldu egiaztatzen ez bada behintzat.
3. Gobernu organoei dagokien erantzukizuna eskatzeko egintza, eta erantzukizun hori ezartzen duen epai irmoa, Fundazioen Erregistroan inskribatu beharko dira.
4. Babesletzak, erantzukizun egintza hori erabili ahal izango du, bere ekimen propioaz edo legezko interesa duen norbaiten arrazoizko eskaerari erantzunez. Era berean, erantzukizun hori sortzaileak berak ere gauzatu ahal izango du, baldin eta Patronatuko kideen jardura Fundazioaren helburuen aurkakoa edo kaltegarria bada.

22. artikulua.- Eskuordetzeak, batzorde delegatu edo exekutiboak eta ahalordetzeak.

1. Patronatuak bere kide baten edo gehiagoren esku utzi ahal izango ditu dagozkion ahalmenak. Ezin izango dira eskuordetu, inolaz ere, honako gai hauei buruzko erabakiak:
 - a) Urteko kontuen onespena.
 - b) Jardura planaren onespena.
 - c) Estatutuen aldaketa
 - d) Fundazioaren bat-egitea, bereiztea, eraldatzea, desagitea eta likidazioa.
 - e) Beste pertsona juridiko bat eratzeako egintzak, baldin eta helburuei zuzenean lotuak ez badaude behintzat.
 - f) Beste pertsona juridiko batzuetako partaidetza eskuratzeko edo saltzeko egintzak, baldin eta partaidetza horien zenbatekoa Fundazioaren aktiboaren %20 baino gehiago bada.
 - g) Fundazioaren aktiboaren %20 gainditzen duten ondasun edo eskubideak xedatzeko edozein egintza.
 - h) Zuzkidura handitzea edo gutxitzea.
 - i) Aktibo eta pasibo guztien edo batzuen bat-egitea, bereizketa edo lagapen orokorra.



Notaria erabilerarako soilik.
Para uso exclusivo notarial.

B 27040874



arantzazuGaur



- j) Sozietateak edo beste pertsona juridiko batzuk azkentzeko egintzak.
k) Patronatuak kideen autokontratazioa, salbu eta jarduketa hori errepikatua bada eta Babesleztzak aurretik baimendu badu kasu beretarako.
l) Erantzukizunpeko adierazpenak onartzea eta formalizatzea.

2. Patronatuak, aurreko zenbakian adierazitako mugak errespetatuz, batzorde exekutibo edo batzorde delegatu baten edo gehiagoren esku utzi ahal izango ditu, guztiz edo neurri batean, bere ahalmen eta eginkizunak. Legez eskualdatu ezin diren ahalmen eta eginkizunak ez dira inolaz ere eskuordetuko.

3. Patronatuak, halaber, ahalorde orokorrak eta bereziak eman eta errebokatzeak aukera izango du.

4. Eskuordetzeak eta ahalordetze orokorrak (auzietarakoak kenduta) emateak eta errebokatzeak Fundazioen Erregistroan inskribatu beharko dira..

23. artikulua.- Gerentzia

Gerentzia lanak beste pertsonen gain utz ditzake Patronatuak, kasuan kasuko zereginei dagokien ordainsaria emanez.

Gerente izendatutako pertsonak Fundazioaren zuzendaritza bereganatuko du zuzenean, Patronatuak ezarritako arauak jarraituz. Era berean, Fundazioaren administrazio lanak zuzendaritza eta hark eskuordetzen dizkion gainerako ahalmen guztiez arduratuko da.

Patronatuak kideei Fundazioaren kudeaketaren berri emango die, Patronatuak ezarritako maiztasunez.

24. artikulua.- Fundazioaren zerbitzurako langileria

1.- Arantzazu eraberritzeko egitasmoa dinamizatuko duen batzorde exekutibo profesional eta eraginkorra izango du Fundazioak; eta horrek, Fundazioaren Patronatuaren zuzendaritzapean jardungo du.

2.- Fundazioak, langileak hautatzerakoan, berdintasun, merezimendu, gaitasun eta publikotasun printzipioak jarraituko ditu; eta horretarako, bidezko deialdia argitaratu emango du.

II. KAPITULUA. PATRONATUAREN FUNTZIONAMENDURAKO ARAUBIDEA.

25. artikulua.- Barruko funtzionamendua

1. Patronatuak BI (2) bilera egingo ditu, gutxienez, urtean. Urteko lehenengo sei hilabeteen barruan ezinbestez elkartuko da urteko kontuak onartzeko; eta urteko azken hiru hilabeteen barruan, berriz, hurrengo ekitaldiko jardura plana onartzeko.

2. Patronatuaren bileretarako deialdiak idatziz egingo dira, ahal bada komunikabide elektronikoz. Deialdian, lehendakariak gobernu organoko kideen iradokizunak aintzat hartuta erabakitako gai zerrenda adieraziko da. Deialdia, bilera eguna baino gutxienez 10 egun lehenago egin beharko da, larrialdiko gaia ez bada behintzat, horrelakoetan epea 3 egunera laburtu ahal izango baita.

26. artikulua.- Patronatua eratzea eta erabakiak hartzea

1. Patronatua lehen deialdian balio osoz eratuko da, baldin eta kide kopuruaren erdia eta bat, berez edo ordezkarien bitartez, bertaratu badira.

Aurreko pasarteetan adierazitako quoruma osatu ezean, Patronatua ordubete beranduago bilduko da, eta bigarren bilera honetan edozein kide kopuru nahikoa izango da, baldin eta gutxienez hiru kide bertan badaude eta betiere, Lehendakaritza edo Lehendakariordetzako tituluak aurrean badaude.

Aurreko pasarteetan adierazitakoa hala izanik ere, Patronatua deitutzat eta balioz eratzatzat joko da baldin eta kide guztiak aurrean direla, aho batez bilera egitea onartzen badute.

2. Erabakiak botoen gehiengoz hartuko dira, honako kasu hauetan izan ezik:

- a) Aldatu, bat egin, bereiztu, eraldatu edo desegiteko erabakiak, horretarako kideen bi herenen aldeko botoa beharko baita.
- b) Estatutu hauen arabera, beste nolabaiteko botazio quoruma behar duen edozein erabaki.

Gerta litezkeen berdinketak lehendakariaren botoak erabakiko ditu.

3. Idazkariak Patronatuaren bilera bakoitzeko akta egingo du. Agiri horretan, bileraren eguna eta lekua adierazteaz gain, honakoak zehaztu beharko dira: bertaratu diren kideak, eztabaidagaiak, hartutako erabakiak eta, bereziki hala eskatuz gero, boto partikularrak.

4. Patronatua bideokonferentziaz edo bestelako komunikabideen bitartez elkartu ahal izango da, baldin eta bermatua geratzen bada bilerara bertaratu direnen identifikazioa, komunikazioaren jarraipena, eztabaidetan parte hartzeko aukera eta botoa ematea. Horrelakoetan, bilera hori lehendakaria dagoen lekuan egin dela ulertuko da.

5. Patronatuak, aparteko kasuren batean, bilera egin gabe har ditzake erabakiak, baldin eta informazioa jasotzeko eta botoa emateko eskubideak bermatuak badaude, boto jaso izana frogatzen bada, eta botoaren benetakotasuna bermatzen bada. Ulertzen da erabakia pertsona juridikoaren egoitzan hartu dela, balioz emandako azkeneko botoa jaso den data berean.

III. TITULUA. ONDAREA ETA ERREGIMEN EKONOMIKOA

1. KAPITULUA. ONDAREAREN OSAKETA, ADMINISTRAZIOA ETA ZAINTZA.

27. artikulua.- Fundazioaren ondarea

1. Fundazioaren ondarea zuzkiduran txertatzen diren eta ekonomikoki balora daitezkeen ondasun, eskubide eta betebeharrak osatuko dute. Fundazioak eratu ondoren eskuratzen dituenak ere ondare horretan sartuko dira, zuzkidurari atxiki ala ez.



Notaria erabilerarako soilik.

Para uso exclusivo notarial.

B 27040873



arantzazuGaur



2. Fundazioak aplikagarri zaizkion arauak beteko ditu ondarea erabili eta administratzerakoan; eta, estatutu hauetan ezarritakoarekin bat etorritik, ondare horrek ematen dizkion etekinak edo errentak Fundazioaren berriazko helburuetara bideratuko ditu.

3. Xedatzeko edo kargatzeko gainerako egintzak Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legeak 26. artikuluan jarraituz egingo dira.

28. artikulua.- Ballabideak

Fundazioaren ondarea honakoek osatuko dute:

- a) Eraketa eskrituran jasotako hasierako zuzkidura.
- b) Kide sortzaileen eta geroztik sartutakoek ekarpenak eta kuotak, ohikoak eta aparteak; eta, Patronatuak kideek beren borondatez ordaindu nahi dituzten kuotak eta ekarpenak, ohikoak eta aparteak.
- c) Zuzenbidez onartutako beste edozein bide erabiliz, etorkizuneko eskuratzen duen ondasun edo eskubide oro; bereziki, beste pertsona, antolakunde eta erakundeek legatu, dohaintza, ekarpen edo subentzioen bitartez uzten dizkion ondasun eta eskubideak. Onartutako dohaintza, legatu eta herentzien berri eman beharko dio Babesleztari.
- d) Fundazioaren ondareak eta burutzen dituen jarduerak emandako etekin edo errentak, produktuak edo onurak, hala nola, emandako zerbitzuen ordainetan, indarrean dagoen legeriaren arabera jasotako ordainsariak.
- e) Aplikagarri zaion legeriaren esparruan izan dezakeen beste edozein ballabide.

29. artikulua.- Ondare aldaketak

Fundazioaren Patronatuak, edozein momentutan eta behar den orotan, beharrezkotzat jotzen dituen aldaketak, eraldaketak eta itzulketak egin ahal izango ditu Fundazioaren kapitalean, unean uneko egoera ekonomikoak agintzen duenari jarraituz. Eragiketa horien xede bakarra izango da, kapital horren balio nominala mantendu arren, balio eraginkorra edo erosteko ahalmena ez murriztea.

30. artikulua.- Fundazioaren ondarea zaintzea

Fundazioaren ondarea zaindu eta babestearren, honako arauak beteko dira:

- a) Fundazioaren ondarea osatzen duten ondasun eta eskubideak Fundazioaren izenean egongo dira, honen inbentarioan jasoko dira eta, hala badagokio, bideko erregistroetan inskribatuko dira.
 - b) Ondasun higiezinak edota eskubide errealek Fundazioaren izenean inskribatuko dira Jabetza Erregistroan. Inskribatu beharreko gainerako ondasunak kasuan kasuko erregistroetan inskribatuko dira.
 - c) Baloreak eta esku-diruak, jabetza tituluak, gordailatzeko agiriak, hala nola ondasun baten jabaria, edukitza, erabilera edo gozatzeko eskubidea adierazten duten ziurtagiriak eta Fundazioaren titularitatekoak diren gainerako eskubide guztiak, Patronatuak erabakitzen duen entitatean gordailatuko dira Fundazioaren izenean.
 - d) Ondasun higikorrek Patronatuak erabakitzen duen eran zainduko dira.
- Ondasun eta eskubide horiek guztiak inbentarioen liburuan zehaztuko dira, eta hori, Patronatuak idazkariaren ardurapean egongo da. Liburu horretan, ondasun edo eskubide bakoitza identifikatu eta deskribatzeko behar diren gorabehera guztiak adieraziko ditu, Patronatuaren kontrolpean.

II. KAPITULUA. ERREGIMEN EKONOMIKOA.

31. artikulua.- Enpresa jarduerak

Fundazioak, bere xedeekin lotuak dauden edo xede horietarako osagarriak diren merkataritza zein industri jarduerak burutu ahal izango ditu zuzenean edo zeharka, baldin eta lehia askearen arauak eta printzipioak betetzen baditu.

32. artikulua.- Ekitaldi ekonomikoa eta jarduera plana

1. Ekitaldi ekonomikoa urtekoa izango da, eta ekitaldi hori bat etorriko da urte naturalarekin.
2. Fundazioak jarduera plan bat egingo du ekitaldi ekonomiko bakoitzeko, non diru-sarrerak eta gastuak adieraziko baititu orekaz. Bertan jasoko dira, halaber, helburuak eta egitea aurreikusten diren jarduerak. Planari azalpen-memoria bat gehituko zaio.
3. Patronatuak jarduera plana eta berekin doan azalpen-memoria onartu eta Babesletzari aurkeztu behar dizkio ekitaldi bakoitzeko azken hiru hilabeteetan.

33. artikulua.- Ekonomia eta kontabilitate betebeharrak

1. Urteko kontuak onetsi eta hurrengo 30 egun naturaleko epearen barruan, Fundazioaren Patronatuak Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistrora bidaliko ditu urteko kontuak – behar bezala sinatuta- gordailutzeko. Eta kontu horiek bete egin beharko dituzte irabazi asmorik gabeko entitateei buruzko araudian xedatutako baldintzak.
2. Fundazioaren urteko kontuetan honakoak sartuko dira gutxienez: balantzea, emaitza kontua, memoria eta aurreko jarduera planaren likidazioa. Orobat, Patronatuak auditoretza-txostena aurkeztuko du, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legean edo aplikatu beharreko beste lege batean aurreikusitako kasuetan.
3. Kontu horietan garbi azalduko da Fundazioaren ondare, ekonomia eta finantza egoera, urtean zehar egindako jarduerak eta ondarearen kudeaketa ekonomikoa, Fundazioaren helburuak eta legeko aginduak jakinarazteko eta betetzen direla justifikatzeko moduan.

34. artikulua.- Kontuak ematea

Patronatuak, urte bakoitzeko lehen sei hilabeteen barruan, egindako kudeaketa Fundazioaren helburuekin bat datorrela egiaztatu beharko dio Babeslaritzari, aurreko 33. artikuluan ezarritako baldintzetan.

35. artikulua.- Kontratazio erregimena

Fundazioak egindako kontratazioak bat etorriko dira kontratu publikoen arloan indarrean dagoen legearekin; eta, edozein kasutan ere, publikotasun eta konkurrentzia printzipioei jarraituz egingo dira.

III. KAPITULUA. BALIABIDEAK FUNDAZIOAREN XEDEARI APLIKATZEKO ARAUAK.



Notaria erabilerarako soilik.
Para uso exclusivo notarial.

B 27040872



Arantzazu Gaur

Arantzazulab
GIZARTE BERRIKUNTZA
SOCIAL INNOVATION

36. artikulua.- Administrazio sarreraren eta gastuen xedea

1. Fundazioaren ondasunak eta etekinak, haren berariazko helburuak betetzeko erabiliko dira berehala eta zuzenean.

2. Fundazioak, aldika-aldika, duen xedeari dagozkion berariazko jarduerak antolatuko ditu. Hori horrela, urtero prestazioen plangintza egin eta jarduerak gauzatzeko eta esleitzeko era erabakiko du.

3. Fundazioaren helburuetarako, fundazioaren emaitzen kontuko diru-sarreraren %70 erabili beharko da gutxienez. Emaitzen kontua kalkulatu da kontzeptu guztiak hartuta, behin kendu ondoren diru-sarrerak lortzeko egindako gastuak, Fundazioaren helburuak betetzeari dagozkionak izan ezik

Betebehar hori betetzeko epeari dagokionez, emaitzak eta diru-sarrerak lortu diren ekitaldiaren hasieraren eta ekitaldi hori itxi ondorengo hiru urteen artekoa izango da hura.

Artikulu honetan ezarritakoaren ondorioetarako, ez dira diru-sarreratzat hartuko ondare-hornidura kontzeptuan egindako ekarpenak.

4. Administrazio-gastutzat joko dira fundazioaren ondarea osatzen duten ondasun eta eskubideen administrazioak zuzenean eragindakoak, bai eta patronatuko kideek euren karguak betetzeagatik egindakoak, baldin eta, horien gainean errenbolsatso-eskubiderik badute.

Administrazio-gastuen zenbatekoak ezingo du gainditu Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legearen 29.4 artikuluaaren bigarren paragrafoan jasotako kopuruetako handiena.

IV. TITULUA. ALDATZEA, BAT EGITEA, BEREIZTEA, ERALDATZEA ETA DESEGITEA

37. artikulua.- Estatutuak aldatzea

1. Fundazioaren Patronatuak estatutu hauek aldatzea erabaki dezake, baldin eta aldaketa hori komenigarria bada Fundazioaren helburuak hobeto betetzeko, eta sortzaileen berariazko debekurik ez badago.

2. Aldaketa hori arrazoiz erabaki beharko da, gutxienez kide guztien bi herenen aldeko botoarekin.

3. Eskritura publikoa egin eta gero, estatutuen aldaketa Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatuko da Patronatuak akordioa hartu eta ondorengo sei hilabetetan.

Hala ere, estatutuen aldaketak fundazioaren helburuak aldatzea edo kentzea baldin badakar, Babesleak berariaz onartu beharko du, inskribatu aurretik.

38. artikulua.- Bat egitea

1. Patronatuak, era berean, beste entitate batekin edo gehiagorekin bat egitea erabaki dezake, baldin eta Fundazioaren helburua behar bezala bultzatuko dela bermatzen bada.

2. Erabaki horri arrazoitu egin beharko da eta, onartzeko, Patronatuko kideen bi herenen aldeko botoa beharko da gutxienez. Gero, Babesletzari jakinarazi beharko zaio, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legearen 38. artikuluan xedatu ondorioetarako.

3. Eskritura publikoa formalizatu ondoren, bat egitea Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatuko da.

39. artikulua.- Bereiztea

1. Fundazioaren zati bat bereizi ahal izango da edo fundazioa zatitu, beste fundazio bat edo batzuk sortzeko, edo aurretik sortuta dagoen beste fundazio bati edo batzuei eskualdatzeko, ondarea bananduta baldin eta bereizitako Fundazioaren helburuak hobeto beteko direla justifikatzen bada eta Fundazioaren bideragarritasun ekonomikoa arriskuan jartzen ez bada.

2. Bereizteko erabakia arrazoitu egin beharko da; eta, gutxienez, kide guztien bi herenen aldeko botoa beharko da erabaki hori hartzeko.

3. Eskritura publikoa formalizatu ondoren, bereiztea Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatuko da.

40. artikulua.- Fundazioa eraldatu eta bestelako erakunde bihurtzea

1. Fundazioa eraldatu eta beste mota bateko pertsona juridiko bihurtu ahal izango da, betiere irabazi asmorik izan gabe jatorrizko Fundazioaren helburuak betetzen baditu, jarduteko eremua Euskal Autonomia Erkidegoan badu eta Fundazioaren ondarea organo publiko baten tutoretzapean mantentzen badu bere osotasunean.

2. Eraldatzeko erabakia Fundazioaren Patronatuak onetsi behar du; zer pertsona juridiko mota bihurtu nahi duen ere erabakiko du, baita estatutuetan egin beharreko aldaketak ere.

3. Eraldaketaren ondorioz Fundazioa ez da desegingo, ez eta likidazio prozedura irekiko ere, eta bere nortasun juridikoa mantenduko du. Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan baja emango zaio, dagokion erregistroan inskribatzeko.

4. Fundazioa eraldatzeko erabakia arrazoituta hartu beharko da, gutxienez Patronatuko kideen bi herenen aldeko botoarekin.

5. Eraldatzeko erabakia Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatu beharko da.

41. artikulua.- Desegitea

Fundazioa desegingo da:

- a) Osatzen duten entitateek hala erabakitzen badute, eratzeko garaian jarraitutako baldintza eta eskakizun guztiak betez.
- b) Eratu zenean finkatutako helburua erabat betetzen denean.
- c) Fundazioaren helburua betetzea ezinezkoa denean, EAEKo Fundazioen Legean estatutuen aldaketari eta fundazioen bat-egiteari eta bereizketari buruz xedatutakoa gorabehera.



Notaria erabilerarako soilik.
Para uso exclusivo notarial.

B 27040871



Arantzazu Gaur



- d) Beste batekin bat egiteak ondorio hori dakarrenean.
e) Legeek aurreikusitako beste edozein arrazoi gertatzen denean.

42. artikulua.- Desegiteko prozedura

1. Aurreko artikuluen a), b) eta c) idatzi-zatietan adierazitakoa gertatuz gero, fundazioa desegitea Patronatuak erabaki beharko du eta Babesletzak berretsi. Patronatuaren erabakirik ez badago edota haren erabakia Babesletzak berretsen ez badu, ebazpen judizial arrazoitua beharko da fundazioa azkentzeko, patronatuak edota Babesletzak eskatuta, kasuen arabera.
2. Aurreko artikuluen e) idatzi-zatian adierazitakoa gertatuz gero, ebazpen judizial arrazoitua eskatuko da.
3. Fundazioa desegiteko erabakia edo epailearen ebazpen arrazoitua, halakorik izanez gero, Fundazioen Erregistroan inskribatuko da.

43. artikulua.- Likidatzea

1. Fundazioaren desegiteak –haren jatorria bat-egite prozeduraren bat den kasuetan izan ezik–, edo fundazioa desegiteko arrazoiak betetzeak, likidazio-prozesua irekitzea ekarriko du. Prozesu hori Patronatuak edo, Babesletzaren kontrolpean, gobernu-organo horrek izendatutako likidazio-batzorde batek eramango du aurrera, salbu eta, kasua hori bada, ebazpen judizial arrazoitu batek besterik ezartzen badu. Fundazioak bere nortasun juridikoa izaten jarraituko du prozesua amaitu arte, eta, epealdi horretan, "likidazioan" dagoen fundazio gisa identifikatu behar da.
2. Fundazioa likidatetik ondorioztatzen diren ondasun eta eskubideak, eraketa eskrituran jasotako sortzailearen borondateari jarraituz, erakunde publikoetara edo antzeko interes orokorreko helburuak aurrera eramaten dituzten irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatueta bideratuko dira; hau da, Fundazioaren izaerari eutsiz Patronatuak erabakitzen dituen xedeetara.
3. Patronatuaren erabaki hori falta bada, desegindako fundazioaren helburuen antzekoak dituzten beste fundazio edo erakunde batzuetara bideratuko ditu Babesletzak ondasun eta eskubideak, eta, lehentasunez, beren helbidea udalerriri berean edo, han izan ezean, Gipuzkoako lurralde historikoan dutenetara.

V. TITULUA. FUNDAZIOEN BABESLETZA ETA ERREGISTROA

44. artikulua.- Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesletza

Fundazio hau Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesletzaren zaindazapean, aholkularitzapean eta kontrolpean egongo da, indarrean dauden legeetan ezarritakoaren arabera.

45. artikulua.- Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroa

Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatuko dira Fundazio honen eraketa, bai eta haren egintza edo negozio juridiko guztiak ere, legearen arabera hala egin behar badute.

VI. TITULUA. FUNDAZIOAREN LAGUNTZAILEEN ARAUBIDE JURIDIKOA

46. artikulua.- Laguntzaileak

Eraketa-eskritura egin eta gero, berariazko jarduera edo programa jakin batzuk gauzatzeko xedez Fundazioari ekarpen ekonomiko bat egiten dioten pertsona fisiko edo juridikoak, laguntzaile moduan atxiki ahal izango zaizkio. Ekarpene horren zenbatekoa Patronatuak erabakiko du.

Arantzazu Gaur Fundazioa laguntzaile moduan osatzen dutenek, entitateak burutzen dituen jardueren berri izateko eskubidea izango dute bederen. Horretarako, urtean bilerak bat egingo da gutxienez. Era berean, beren irudi korporatiboa Fundazioak argitaratzen dituen argitalpen guztietan ikusiko dute, argitarapenaren berri zehatza jasoz; Arantzazu Gaur Fundazioarekin duten lotura jakitera emateko eskubidea izango dute; Fundazioaren aretoak, entitateak eratzearen xedeekin bat datozen dibulgaziozko jarduerak burutzeko erabili ahal izango dituzte -libre badaude behintzat-; Fundazioak antolatzen dituen ekitaldi guztietarako gonbidapena jasoko dute; eta, edozein kasutan ere, laguntzaile moduan dagokien lehentasunezko tratamendua jasoko dute. Hori guztia, Arantzazu Gaur Fundazioarekin sinatutako lankidetzaren hitzarmenaren xehetasun osoz adierazitakoa eragotzi gabe; izan ere, kasuan kasuko eskubide eta betebeharrak hitzarmen horietan arautuko baitira.

47. artikulua.- Ohorezko laguntzaileak

Fundazioaren helburuak lortzeko bidean era nabarmenean lagundu izan duten edo laguntzen duten pertsona fisiko edo juridikoak, ohorezko laguntzaile izendatu ahal izango ditu Patronatuak.

J. M. Auzi

[Firma]